

txintxarri



14.000 bihotz, 'maite zaitut' esateko

Maite Zaitut herri omenaldia egingo diete, maiatzaren 3an, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoei / 2

TXINTXARRI

Solasean eta jolasean aritu dira

Bertso Astea hasi da: gogoetak eta sekretutxo batzuk partekatu dituzte Ane Labaka eta Beñat Gaztelumendik / 3

Herriko zenbait musika eragilek Santa Zezilia eguna ospatu dute udalerrian barrena / 6

Taula Xake Klubeko kideak bakarkako Gipuzkoako txapelketako lehen postuetan izan dira / 11

Gurpil aulkiko Eslalom jardunaldia jokatu dute bihar, hilak 30, Michelin kirol gunean / 12

Tirabira euskal reggae taldearen berri eman digu Xabi Herrera 'Xa2 Makulu' lasarteoriatarak / 15

Gaur (hilak 29) itxiko dute Azaroaren 25eko egitaraua, 'Soy Nevenka' filma proiektatuta / 4

HURRENGO TXINTXARRI ALDIZKARIA ABENDUAREN 13AN KALERATUKO DUGU

Presta zaitez Eguberrietarako!

ELECTRICIDAD ARREGUI

600 85 75 86 
www.electricidadarregui.com

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA
Tel: 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21



Labea

AirFry funtzio anitzeko labea, kozinatzeko 9 funtzio eta HydroClean sistemarekin



Lurrun labea
Funtzio anitzekoa, Pirolitikoa



Maite Zaitut Elkarteak Jalgi Kafe Antzokian aurrera eraman du jaialdia iragartzeko prentsaurrekoa. TXINTXARRI

'Maite zaitut' erraldoia, herriko sudurgorrientzat

Maite Zaitut festa erraldoia iragarri du Maite Zaitut Kultur Elkarteak sudurgorri lasarteoriatarrek omentzeko. Maiatzaren 3an izango da, 17:00etan, BECen. Pailazoen 37 urteotan "euskal gizarteari egin dioten ekarpena" aitortu eta eskertu nahi diete

Txintxarri

Aintzatespena iragarri eta horren gaineko xehetasunak emateko prentsaurrekoa aurrera eraman du Maite Zaitut Elkarteak berriki. Jalgi Kafe Antzokian izan da, eta bertan izan dira aipatu elkarte kide Amagoia Mujika eta Nerea Godoy, ikuskizuneko gidolari lanak egingo dituen Ane Labaka bertsolari eta sortzaile herritarra, eta ekimenaren zu-

zendari artistiko Agurtzane Intxaurrea.

Mujikak hartu du hitza lehenik, eta ospakizunaren gainean hitz egin die bertaratu diren gonbidatu eta entzuleei. Azaldu du maitatzen zekien herriari *maite zaitut* esaten irakatsi zietela Pirritx, Porrotx eta Marimototsek, eta, nabarmendu, dagoeneko ereserki bilakatu den *Maite zaitut* abestiak 20 urte beteko dituenean, sudur-

gorriei, merezi duten *maite zaitut* ozena eskaintzeko herri omenaldia izango dela.

"Esku askotara jositako ikuskizun hunkigarri eta dibertigarria" izango dela iragarri du, eta, gaineratu, denok haur bilakatzeko izango dela helburua, sudur gorria jantzi eta pailazoen unibertso magikora jauzi egiteko. Hori esanda, ohartarazi du maiatzeko ikuskizunean, oholtzan ez direla pailazoen

ariko; horiek, oraingoan, publiko izango direla.

Sudurgorrien ibilbidea

Mujikak gogora ekarri du 1987. urtean ekin ziotela euren ibilbideari, eta horrekin batera, azpimarra egin dio Pirritx, Porrotx eta Marimototsek belaunaldi askori utzi dioten arrastoari: "Jendarte oso bat eraikitzeke oinarri eta zimenduak jarri dituzte". Euskarara etorri direnak beso zabalik jaso dituztela ere adierazi du, baita mapen aurrean pertsonak lehenetsi dituztela ere. Aniztasunaren bandera guztiak haizatu dituztela ere ez du aipatu gabe utzi.

37 urte hauetan guztietan Katxi-porretako pailazoen "mundu ikuskera bat" landu dutela apatu du gero: "Haien ikuskizunen bitartez pailazogintza irauli dute, eta gaztetxoek munduari begiratzeko modu horretan hezteko aitzakian, tresna eraldatzaile eta pedagogiko bilakatu dira helduontzat ere".

Beraz, egindako ekarpen horren guztiaren trukean, "tamaina bereko eskertza" gorpuzteko, eta sudurgorriek hainbat eta hainbatetan abestu duten moduan, *eman eta jaso* logikari kolektiboki erantzuteko antolatuta dute omenaldi jaia.

Musikariak, abeslariak, dantzariak, antzerkigileak, arte plastikoetako sortzaileak, bertsolariak nahi bestelako diziplinetako artistak batuko dira ekimenean. Ez dira faltako orain arte pailazoen bidelagun izan diren elkarten eta norbanakoen ekarpen bereziak. Zirraraz eta alaitasunez betetako ikuskizun bat iragarri dute.

Zuzendari artistikoaren erronka

Ikuskizunaren zuzendari artistikoa den Agurtzane Intxaurreagak hartu du hitza gero, eta argitu, pailazoen sortzen duten atmosfera berezi hori bueltan ematea dela

erronka: "Ikuskizun ederra izango da, diziplina anitz bilduko dituen. Dibertigarria bezain dinamikoa eta hunkigarria. Ez da pailazoen ohiko emanaldia izango; haiek oholtzatik eta publikotik aintzatetsiak izango dira. Baina sudurgorriei ikasitako mundu ikuskeratik, Euskal Irritik bihotzez jositako ikuskizuna eskaintzea da xedea". Azaldu du berarentzat "errazagoa" litzatekeela Lasarte-Oria 14.000 pertsonekin betetzea eta herrian barrena egitea festa erraldoia, baina ahalegin guztia egingo duela BEC bezalakoa "edukiontzia huts bati" poetika, zirrarra eta bizipoza emateko.

Ane Labakak, berriz, adierazi du "ilusio handiz" jaso zuela gidolari lanetan aritzeko proposamena, eta "motorrak berotzeko", berak sortutako testua irakurri die bertaratu direnei (www.txintxarri.eus web atarian duzue bideoa ikusgai).

Agerraldia amaitzeko Maite Zaitut Kultur Elkarteak Nerea Godoyk hartu du hitza; ekimenerako sarreraren salmentaren gaineko informazioa zabaldu du. Ostirala honetan, hilaren 29an, jarriko dituzte salgai 11:00etan. Horiek sarean erosi nahi dituenak honako web ataria erabili beharko du: www.nikeremaitzezaitut.eus. Sarre fisiko batzuk ere salgai jarriko dituztela jakinarazi du; horiek, Durangoko Azokako zenbait postutan eskuratu ahal izango dituzte interesdunek. Horietako bakoitzaren prezioa 15 eurokoa izango da.

SARRERAK GAUR, HILAK 29, JARRI DITUZTE SALGAI; 15 EUROREN TRUKE ESKURA DAITEZKE

Euren eskubideak zeintzuk diren ikasi dute herriko haurrek

Lasarte-Oriako Udalak, Mestiza elkartearekin elkarlanean, Haurren Nazioarteko Eguna aurrera eraman du

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak, Mestiza elkartearekin elkarlanean, Haurren Nazioarteko Eguna aurrera eraman du, Antonio Mercero gunean; haurren eskubideak eta garapen aukerak balioan

jartzeko ekimen sorta bat egin dute.

Saioari hasiera emateko, haurren eskubideak zeintzuk diren ikasi dute bertaratu diren gaztetxoek, eta Pantxika Solorzanoren kantu batekin dantzan aritu dira gero.

Ostean, Ipuin kontaketa saioa izan da; Msuswa P. Mabena & Dale Blankenaar idazleen *Gezurren txoria* irakurri diete.

Eskulanetan aritu dira gero; paperezko txoriak margotu dituzte, eta afixa batean itsatsi dituzte.

Amaitzeko, Ostomila txotxongilo taldean emanaldi dibertigarri bat eskaini die; Nikaraguako emakume zahar baten kontakizuna erakutsi diete sortzaileek.

Arratsalde eder bat igarota joan dira haurrak etxera; opari sorta bat eraman du partaide bakoitzak.



Ipuin kontalaria adi-adi entzun dute herriko gaztetxoek. TXINTXARRI

Solasa eta jolasa uztartu dituzte bertsolariak

Saio ireki eta diziplinarteko batekin ekin diote Bertso Asteari: eskarmentu handia duten Ane Labaka eta Beñat Gaztelumendi gonbidatu dituzte bertsolarietaz hitz egitera, giro lasai eta erosoan. Gaur itxiko dute egitaraua, gazteentzako I. Imanol Lizardi Sariketarekin

Txintxarri

Bertsotan hasi aurreko isiluneak, bakoitzaren tik eta keinuak, bertso eskoletako hastapenak, errimak, oholtzara igotzearekin batera hasten diren zeremoniak, gai jartzaileen lana... Bertsolarietaren unibertso zabaleko gai asko jorratu zituzten diziplina horri buruzko solasaldian, hilaren 26an. Hizlariak izan ziren eskarmentu handia duten eta plaza askotan jardun diren bi bertsolari, Beñat Gaztelumendi eta Ane Labaka lasarteoriatarra. Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Ttakun Kultur Elkarteak (Earra! bertso eskolarekin eta Imanol Lizardi lantaldearekin elkarlanean) antolatutako Bertso Asteko aurreneko jarduerak herritar ugariaren interesa piztu du eta bertaratu direnek txiki utzi dute osasun zentro ondoko eraikineko bigarren solairuko aretoa. Aipatu saio hori Mailu Arrutik dinamizatu zuen, bikain.

Aldizkari hau inprentara bidaltzerakoan bertso-poteoa egiten ari ziren Earra! bertso eskolako ikasleak, trikitilarietarekin batera, erdigunean barrena. Gaur (hilak 29), berriz, programako jarduera nagusia egingo dute, 16 eta 18 urte arteko bertsolari gazteentzako I. Imanol Lizardi sariketa. Mirentxun izango da, 18:00etan.

Informazio guztia www.txintxarri.eus atari digitaletan duzue.



Ane Labaka (hizketan) eta Beñat Gaztelumendi gustura aritu ziren. TXINTXARRI



Herritarren jakin-mina piztu zuen bertso solasaldiak. TXINTXARRI



NEURE KABUZ
GORKA LASA

Zentzumenen platera

Ostegun arratsaldea da eta zero grisak estali du sukaldetik ikusten dudan tontor gaina. Eguna laburra izanik, argia pizturik hasi naiz burua, bihotza eta eskuak bat eginik sukaldeko osagaiak eta tresneria prestatzen. Bere orriak zurituz, labana zorrotz hotzarekin taula gainean jarri eta tipula xehatu dut. Ondoren, olio epela zartaginean kiribiltzen hasi denean, bertara gehitu eta su ez titan goxatzen utzi dut.

Bitartean, patatak arretaz zuritzen ditut, bakoitza nire eskuetan jirabiraka. Zatitzea artea bihurtzen da; patata irregular batetik xafla mehe erregular berdina eta dotoreak sortuz.

Ustekabean lehen usainak inguruan zabaltzen dira irudimena piztuz, tipula gorrituaren usain gozoa airean. Soinuak ere bertan dira, tipulak olio berotan dantzan eta xuxurlatu egiten du, burbuila errepikakorrek sortuz dena sintonia neurtu baten barruan. Patata gehitu dut, eta egurrezko koilara batez lagundurik, mugimendu arin eta neurtu batzuekin dena nahastu. Koloreak ere aldatuz doaz, horituz, gorrituz, margolan baten gisan. Eta sukaldean ere atmosfera berezi bat sortu da; beroa, usaina, lurruna, soina ... Ederra!

Kontu handiarekin ontzi ertzean kraskatuz hautsi ditut arrautzak. Urre koloreko islak sortu dira, eta bakoitzak istorio txiki bat gordetzen duela dirudi, naufragio eta piratena. Mugimendu arinekin guztia irabiatu eta gatza gehitu. Bizitzak gatza eta piperra behar omen ditu, baina neurrian. Olio berotzen hasi da, ke xumea dariola, eta nahasia isuri dut batasun perfektu batean dena uztartuz.

Buelta emateko unea iritsi da, tentsio unea. Bizitzak berak sortzen dituen beldur eta emozio berdinekin zartagina airean hartu, eta di-da batean jiratu eta arrakasta lortu dut. Patata tortilla osorik atera da, borobil, urrezko tonuarekin. Plater gainean kontu handiz pausatuta eta mahaira, isiltasuna, miresmena...

Kozinatzea, bizitza sentitzea modu bat da, denboran galdu eta zentzumen guztiekin une bakoitza bizitzeko aukera ematen didana. Honen emaitza plater batean biltzen da; hala ere, ez da jaki bat soilik, istorio bat ere badakar; maitasuna, denbora, pazientzia, irudimena, emozioa, oroitzapena, itxaropena uztartzen dituen istorio goxo bat. On egin.

Ttakun
Kultur Elkarteak

Zozketa!
Ttakun Kultur Elkartearen bazkide zara?

ARREGUI ELEKTRIZITATE DENDAN GASTATZEO

30 EUROKO BONUA ZOZKATUKO DUGU!

Eman izena azaroaren 30a arte (barne)

harpidetza@ttakun.eus | 943-37 14 48 | 646 82 44 66 (whatsapp)

MAITE

ESTETIKA ARETOA

Uistin Kalea z/g Lasarte-Oria
Tel. 943-37 08 45

BLACK FRIDAY

GUK BETI DITUGU ESKAINTZA ONENAK

- Aurpegi eta gorputz tratamenduak
- Mota ezberinetako depilazioak
- Solariuma
- Manikura eta pedicura
- Makillajea
- Betileen tindatzea eta "lifting"-a

Gure tratamendu eta zerbitzuak opari-txartel moduan oparitu ditzakezu!

"Euste horma kolektibo bat" aktibatzekeo premia

Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Egunaren harira, prestatutako egitarauko jarduerak aurrera eramaten jarraitzen du udalak. Gaur itxiko du programa, Okendo Zinema Taldearekin lankidetzan 'Soy Nevenka' filma proiektatuta

Txintxarri

Azaroaren 25aren bueltan zenbait jarduerak antolatu ditu Lasarte-Oriako Udalak. Gaur (hilak 29) itxiko du egitaraua, Okendo Zinema Taldearekin batera *Soy Nevenka* filma proiektatuta. Sarrerek 6 euro balio dute eta kultur etxeko leihatilan nahiz Kutxabank Sarrerek atari digitalean eros ditzakete herritarrek. Emanaldia 20:00etan izango da, kultur etxeko auditorioan.

Programaren barruko aldarrikapen ekintza hilaren 25ean bertan aurrera eraman zuten, Okendo plazan. *Emakumeen aurkako indarkeriari ez lelodun afixa* bat eutsi zuten elkarretaratzearekin bat egin zuten dozenaka herritarrek. Udaletxeko arkupeetan babestu behar izan zuten, euria ari zuelako goian-behean. Mobilizatu ziren herritarren buru gainean borobil itxurako informazio panel more batzuk jarri zituzten, indarkeria matxista kasuei buruzkoak.

Gauzak horrela, 2022an 26 ates-tatu egin eta hogeit hamar salaketa jaso zituzten udalerrian; emandako babes aginduak, berriz, bederatziz izan ziren. Ondoren, aurretik udaletxeko bozeramaileen bazarrean aho batez adostutako komunikatu bat irakurri zuten Nuria Fernandez eta Ainara Elicechea zinegotziek. Besteak beste, emakumeen aurkako indarkeria ukatzen dutenen aurrean "euste horma kolektibo bat" aktibatzekeo konpromisoa hartu dute.

Komedia gazi-gozoa

Ttipia konpainiak *Una bofetada no es nada* komedia gazi-gozoa emanaldia egin zuen hilaren 23an, kultur etxeko auditorioan. larunbat arratsaldean Manuel Lekuona kultur etxean. Belen Cruz eta Patxi Perez aktoreak aritu ziren oholtza gainean.

Emakume eta gizon bat leku bitxi eta ezezagun batean daude, ez dakite nola iritsi diren ezta

nola aterako diren ere. Ilean berdina eta bata arrosa dute sonean, "él" edo "ella" idatzita dute. Biek sentitzen dute mina egin dietela, baina ez dute kolperik gogoratzen, zaplazteko bakarra jaso izana ere. Hizketan hasiko dira genero ereduari lotuta jasotako irainez, bizitako iseka edo erasoz, gizon biguna izateagatik batek eta gorputzean duen ilea depilatu nahi ez duelako emakume kanoiak. Bata edo bestea izan aukera izateaz nekatuta daudela ondorioztatuko dute.

Bi egun lehenago XI. Beldur Barik lehiaketako sariak banatu zituzten udal ordezkariak Emakumearen Zentroan. *Mugak hautsiz, bidea eraikiz* (DBH1 mailako ikasleek egina) eta *Vuestros recreos crean machistas* (DBH2) lanak saritu zituzten. Biak kategoria berekoak ziren eta epaimahaikideek bata zein bestea izendatu dituzte irabazle; beraz, egileek 200 euroko sari bana jaso dute.



'Emakumeen aurkako indarkeriari ez' lelodun afixa erakutsi zuten. TXINTXARRI



Patxi Perez eta Belen Cruz aktoreak, antzezten. TXINTXARRI



Beldur Barik lehiaketako irabazleak eta udal ordezkariak. LASARTE-ORIAKO UDALA

Osakidetzaren "aurpegi ilunena" ikertu eta azaldu du

Ahoztar Zelaieta gonbidatu du LOOPA plataformak, osasun sistema publikoaren pribatizazioaz hitz egitera

Txintxarri

Duela hiru urte *Zaldibar zona cero* liburua aurkeztera etorri zenean baino kilometro gutxiago egin behar izan zituen Ahoztar Zelaieta ikerketa kazetari bizkaitarrak, gaur-gaurkoz Ordizian bizi baita. "Gipuzkoarekin adiskidetzen ari naiz", bota zuen *Diagnóstico Tolosaldea. La privatización de la sanidad en el oasis vasco* liburua aurkezteko saioan, sarreran. Jarraian, azaldu zuen "botereak ezkutatuta mantendu nahi dituen datuak azalera" dela bere lana, eta,

Osakidetzaren kasuan, ilargia bailitza, "aurpegi ilunena" iker-tu duela. Hori esatearekin batera, ordea, nabarmendu zuen den-dena ez dela txarra: "Osakidetzaren ilaren alde nago, demokraziaren isla direlako. Itxaron egin behar ditugu. Beste gauza bat da saturazioak eragitea, nahita, jendea sektore pribatura joan dadin". Lasarte-Oria Osasun Publikoaren Alde (LOOPA) plataformak antolatu zuen hilaren 21eko ekimena.

Hasierako hitzartzean erabilitako bromakutsua azkar utzi



Ahoztar Zelaieta, zutik, liburuaren gaineko azalpenak ematen. TXINTXARRI

zuen albo batera Zelaietak, aipatu liburu horren mamia azaltzen hasi zenean. Iñigo Urkullu lehendakari jeltzale ohiak esandakoa ekarri zuen gogora: "Ausartu zen esatera euskal oasiaren koroaren harribitxia zela Osa-

kidetza. Hori horren garrantzitsu eta kuttuna izanda horrela zaindu badute, pentsa ezazue nola kudeatzen ari diren beste alor asko eta asko, Osakidetzak bezainbeste arreta erakartzen ez dutenak...".

Osakidetzaren pribatizazioaren "inflexio puntua" *Osasuna zainduz* izeneko plana izan zela azpimarratu zuen (1991n martxan jarri zuten orduko agintariak, Iñaki Azkuna jeltzalea eta Rafael Bengoa sozialista buru). Horrekin, "erregimen ekonomikoko sozietate" bilakatu asmo zuten Osakidetzaren bere funtzionatzeko moduaren "ardatz nagusia" errentagarritasuna izango zen. "Une horretan, pazienteei bezero deitzen hasi ziren".

Estrategia horren adibide eta ondorio ugari zerrendatu zituen ondoren, eta baita gaur egungo sistemaren "kultura berria" zein den azaldu ere: "Itxarrote zerrenda gero eta luzeagoak, herriz herri kontsultak itxi, arta aurrez aurre eman beharrean kontsulta telematikoak egitea sustatzea...".



Zenbait kategoriatako saridunak, udal ordezkariak alboan dituztela. TXINTXARRI

Herriko literaturaren "bizitasunaren" isla

Haur eta gazteen nahiz helduen lehiaketetako sariak banatu dituzte kultur etxeko hitzaldi aretoan: saridunak, euren senideak eta udal ordezkariak bildu dira. 150 eta 278 lan aurkeztu dituzte bi sariketetako parte hartzaileek, hurrenez hurren

Maitane Aldanondo

Eguerdia baino minutu batzuk lehenago, hitzaldi aretoko aulkiak betetzen joan ziren. Lehen ilaran udal ordezkariak eseri ziren, haien atzean, berriz, saridunak eta beraienekin etorritakoak. Aurrez aurre eserita zegoen Agustin Valdivia alkateak hartu zuen hitza bertaratutakoak agurtzeko. Virginia Woolf-en hitz batzuk irakurri zituen, idazle bat bere obraren bidez ezagut daitekeen moduan, haren atzeko pertsonaren eta bere garaiaren berri ere ematen du. Halaber, irudimena ere balioetsi zuen errealitatea ulertu eta ezezagun zaigunari aurre egiteko tresna gisa. Horre-

gatik guztiagatik, egindako lana eskertu zien partaideei, bereziki gazteenei, sorkuntza desiratua izan arren idazteak erditzetik zerbait ere baduela nabarmenduz, "eta ama guztiek dakite erditzea ez dela erraza eta minik gabea".

Guztira 428 obra aurkeztu dituzte: "Zalantzarik gabe balantze bikaina" eta literaturaren "bizitasunaren" erakusgarri. Eskerrak eman zizkien parte hartu dutenei eta bidean lagun izan dituztenei ere. "Sari hauek herri gisa dugun historiaren zati ezabaezinak dira; jada horren parte zarete".

Ainhoa Aiertzak hartu zuen hitza eta Adrian Golbano La-

rañaga piano ikasleak jotako doinuak lagunduta. Saritutako lanetako batzuk irakurri zituen: Jose Luis Gotor Trilloren *Bancarrotta en la industria del sueño* eta Maite Lopez Las Herasen *Arkosen begiak* poemak eta Miguel Jose Fernández Hernándezen *Declaración* mikroipuina, hain zuzen ere.

150 haur eta gazte

"Ilusioz eta atsegin handiz" parte hartu zuen estreinakoz Literatura batzordeburu Ainara Elicecheak sari banaketan eta aurtengo lehiaketetako zenbait datu eman zituen. Guztira 150 lan aurkeztu dituzte haur eta



Harkaitz Cano, eskuinean, saria jasotzen. IREKIA

Laugarren Euskadi Literatura saria

Harkaitz Cano idazle lasarteoriatarrek Euskadi Literatura sarietako bat jaso du, Haur eta gazteen kategorian, *Mundua pitzatuta dago baina hantxe gabiltza* oinez lanagatik. Aintzatespen hori jaso duen laugarren aldia da.

gaztetxoek: 53, A kategorian, eta 97, B kategorian. C kategorian ez da lanik aurkeztu. Helduen lehiaketan, berriz, euskaraz hamahiru mikrokontakizun eta bederatzia poesia jaso dituzte; eta gaztelaniaz, 187 mikrokontakizun eta 69 poesia. Orotara, 278. Berak ere eskerrak eman zizkien lehiaketa aurrera daramatenei. "Aurten ikusi ahal izan dut zer nolako lana eta ahalegina eskatzen dituen tankera honetako txapelketa bat antolatzek"; kultur etxeko langileei, epaimahaikideei, irakasle eta gurasoei, "zuen laguntza eta sostenguagatik".

Haur eta Gazteen Literatur Lehiaketako epaile izan dira Ane Labaka Mayoz, Idoia Garzes Aldazabal eta Lierni Rekondo Villaron. Helduen Literatur Lehiaketakoan, berriz, Felipe

Juaristi Galdos, Karlos Linazasoro Izagirre eta Elisabete Tolaretxipi Lertxundik euskarazko lan onenak hautatu dituzte; eta Marian Benitez Izquierdo, Mertexte Tranche Iparragirre eta Albert Vazquez Perezek gauza bera egiteko ardura izan dute gaztelaniaz idatzitakoekin. Lehiaketa horretako kategoria bakoitzeko saridunen zerrenda www.txintxarri.eus atari digitalean kontsulta dezakezue.

Sariak banatuta, oroigarri bana eman zieten Aiertza, Golbano eta koordinazioan aritu zen Sera Carrasco Rodriguez musika eskolako piano irakasleari. Alkateak hitza hartu zuen berriro ekitaldia amaitzeko. "Bihotzez eskertu nahi dizuet parte hartu duten guztioei egindako lana", lehiaketa "edukiz eta zentzuz betetzen duelako".

Bere bizitzaz eta ibilbideaz

Oreki Fundazioak gonbidatuta, Jose Manuel Bujanda donostiarrak *De las pistolas al humanismo y vueltas al Humanismo* solasaldian parte hartu zuen Ganbo Iturri elkartearen egoitzan. *Lo reconozco he vivido (y qua a veces me he solido equivocar* hitzaldian bere bizitza eta ibilbidea gainbegiratu zituen, ETAko kide izatetik politikagintzan aritzera.



TXINTXARRI

Miliziano eta gudari errepresaliatuak omenduko dituzte

Oroimen historikoaren alde lanean ari den Islada Ezkutatuak taldeak iragarri du ekitaldi bat egingo duela bihar, hilak 30, Mirentxu eraikinean, 12:00etan. 1936ko gerraren ostean errepresaliatuak izan ziren miliziano eta gudariak oroituak dituzte. Gune horretan bertan monolito bat jarri zuten iaz, "frankismoaren basakeria" pairatu zutenen omenez.

Sare sozialak erabiltzeko moduz hitz egingo du

Lasarte-Oriako Altxa Burua ekimeneko kideek hitzaldi bat antolatu dute abenduaren 3rako. Orain Prebentzioa eragileko kide Mikel Cerezo ariko da Antonio Merce- ro aretoan, 17:30etik aurrera. "Ba al dakigu gure seme-alabek nola erabiltzen dituzten sare sozialak? Erabilera arduratsuz, arriskuen prebentzioaz eta jarduteko jarraibideez hitz egingo du".



ISAAC FARRE ETA TXINTXARRI

Zaindariaren eguna ospatu dute herriko zenbait musika eragilek

Santa Zezilia egunaren bueltan (hilak 22) jarduerak aurrera eramane zituzten Udal Musika Eskolak (UME), herriko txistularien taldeak, Xumela koroak eta Oaintxe in deu! txarangak (batera aritu ziren) eta Alboka abesbatzak.

UMekoak izan ziren aritzen lehenak, bezperan. Kalejiratxo bat egiteko asmoa zuten, baina, eguraldi txarra tarteko, kultur etxeko arkupeetan egin zuten emanaldia azkenean. Hurrengo egunean, zaindariarenean, erdigunean barrena ibili ziren herriko txistulariak, batetik, eta Xumelako eta Oaintxe in

deu!-ko kideak, elkarrekin, bestetik. Lehenak, Kale Nagusitik atera ziren, besteak, berriz, Sagardotegi kaletik. Biek ala biek doinu ezagunetz bete zituzten kaleak eta zenbait taberna inguruan egin zituzten geldialdiak, kanta batzuk abestu eta tragoa edota mokadutxo egiteko.

Albokako kideak, azkenik, San Pedro parrokian izan ziren hilaren 24an, 12:30ean hasi zen meza girotzen. Elizkizuna amaituta, Casa Humada jatetxean bazkaldu zuten abesbatzako partaide eta bazkideek.



TXINTXARRI

Ama-alaben harremana

Hika Teatroak *Zorretan* antzezlanaren emanaldia egin zuen kultur etxean. Amatasuna, zaintza eta maitasunari buruzko tragikomediak Lore eta bere ama Doloresen arteko harremana aztertzen du, denboran jauziak eginda, haurtzaroko beldurrak eta

iraganeke minak gogoratuta. Bere senar Ionek Dolores beraiekin bizitzera etorriko dela esateak erabat aztoratuko du Lore eta horren zergatia azaltzen saiatuko da obra egoera komiko, absurdo eta surrealistik txandatuta.



Artxiboko irudi honetan, saritutako bi jaiotza Muebles Azpeitia dendan ikusgai. TXINTXARRI

Jaiotza lehiaketan parte hartu nahi dutenentzako deialdia

33. Jaiotzen Lehiaketa iragarri du Danok Kidek. Abenduaren 19an eta 20an jasoko dituzte sormen lanak

Txintxarri

Hilabete eskas geratzen da Gabonetarako, eta hori hala izanik, Danok Kide Guraso Elkarteak urtero antolatzen duen jaiotzen lehiaketa iragarri du. 33.a izango da aurtengoa, eta, ohi bezala, 6 urtetik gorakoek izango dute parte hartzeko aukera.

Bertan aritzeko interesa dutenek, kontuan izan behar dute lanak abenduaren 19an, ostegunarekin, eta 20an, ostiralarekin, entregatu beharko dituztela aipatu elkar-tearen egoitzan (Blas de Lezo kalea, 11 eta 13 zenbakian dago), honako ordutegian: 17:00etatik 19:00etara. Horrez gain, zenbait

oinarri gehiago kontuan hartu behar dituzte partaideek; www.txintxarri.eus atarian kontsulta daitezke horiek.

Sariak, kategoriak

Partaideak lau kategoriatan banatuko dituzte: 6 eta 9 urte artekoak (A kategoria), 10 eta 13 urte artekoak (B), 14 eta 17 urte artekoak (C) eta 18 urtetik gorakoak (D). Danok Kidek zehaztu du aurkeztu ostean onartua izan den jaiotza bakoitzaren egileak 15 euro jasoko dituela. Multzo bakoitzeko zein sari banatuko dituzten ere aldizkariaren web orrian kontsulta daitezke.



TXINTXARRI

Gimnasiokoa, kalean

Kalera atera ziren Saito gimnasioko kideak eta beren eskaintzaren parte diren eskolen erakustaldia egin zuten Okendo plazan. Nahi izan zutenek aukera izan zuten zunba, jumping edo borroka egiteko, besteak beste. Beharrezko materiala eta tarte atsegina pasatzeko gogoia irakasleek jarri zuten eta ez ziren gutxi izan goizean zehar parte hartzerantz animatu edo begira egon zirenak.

Asteburuko egitaraua txerriaren inguruan ospatu dute

Ama Guadalupeko Extremadura Etxeko kideek VIII. Txerria Hiltzearen Jaia aurrera eraman dute

Txintxarri

Txerriek beldur dioten San Martin eguna pasata, VIII. Txerria Hiltzearen jaia ospatu zuten Ama Guadalupe Extremadura Etxean, hilaren 22tik 24ra. Animalia horren inguruan antola-

tutako jarduerekin eta jakiekin bete zuten egitaraua. Ogi mamiak jan eta hestebeteak prestatu zituzten, besteak beste.

Extremadura Etxekoek Adarra kaleko 4. zenbakian duten egoitzara joan zenean TXIN-

TXARRI, suak piztuta zeuden eta sukaldean lanean ari ziren kideak. Lehenik, hamaiketakorako ogi mamiak prestatu zituen Estrellak, eta bazkariko eltzekarirako piezak egosten jarri zituzten Angel Barrerak eta lagun izan zituen gainerakoek. Bitartean, perrunillak eta pattarra izan zituzten aukeran zain zeudenek. Lanerako ordua heldu zen ostean eta hestebeteak egiteko tailerrari ekin zioten, horretarako urrats bakoitza zein den ikasita.



Zenbait herritar, ogi mamiak dastatzen. TXINTXARRI



TXINTXARRI

The Beatles, gaurkotuta

Jalgi Kafe Antzokia bete zuten herritarrek The Beatles taldearen omenezko Psicoacoustic laukotearen emanaldiaz gozatzeko. 1960ko hamarkadako kanta ezagunak gainbegiratu zituzten ia bi orduko saioan, eta haiekin batera ikus-entzuleetako askok abestu zituzten hitzak eta dantzara ere animatu ziren zenbait.



1963KO KINTOEN TALDEA

Aurtengoa ere ospatu dute

Gustura egondako tokira itzultzeak merezi zuela irizita, 1963an jaiotako 48 lasarteoriatarrek Lavie jatetxean afaldu zuten hilaren 23an, elkarrekin urte bat gehiago egin dutela ospatu eta urte bereko pertsonen artean harremanak sendotzen jarraitzeko. Hauxe izan zen menua: bakailao brandaren *brioche* opila; parrillan egindako orburua parmesano gaztarekin eta trufa beltz emultsioarekin; burrata krematsua testura desberdinetako tomatearekin; labean egindako txangurroa kokospe iberikoarekin; tenperatura baxura hamazazpi orduz erretako behi saiheskia patata krematsuarekin; eta postrerako, torrada, banilla izozkiarekin.

m
Mondragon
Unibertsitatea

Gure ikasleen ahotan

“LEINN gradua guztiz desberdina da, praktikaren bidez benetako ekintzailtzara bideratuta dago”

Oier Agudo Eslava, Irati Caballero López (Andoain), Eneko Miguez Irizarri (Iruña) eta Alex San Sebastian Irizar (Beasain) LEINN (Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza) graduko 2. mailako ikasleak dira eta Hormart proiektua sortu dute, artearen bidez dendei, enpresei eta espazioei ikusgarritasuna ematea helburu duena.



Nola azalduko zenuke LEINN hitz batean?

Diziplina.

Zer esan nahi du zuentzat proiektu berri bat sortzeak?

Proiektu berri bakoitza ilusio handiz hartzen dugu, batez ere, gure pasioa lana bihurtzen denean.

Nola sortu zen Hormart proiektua?

Proiektu honen ideia, sorkuntza zirra handi baten ondorioz sortu zen, oso argi gunden artearekin erlazioa izango lukeen proiektu bat egin nahi genuela. Horren ondorioz, komertzioetan behar bat ikusi genuen, ikusgarritasuna ematearena atea ixita daudenean. Hormart izena euskarazko bi hitzen batuketara da, Horma + artea.

Nondik ateratzen dituzue ideiak eta nola gauzatzen dira?

Jada, hainbat artelan egin ditugu eta pixkanaka maiztasun handiagoarekin bezeroak lortzen goaz. Artelanak gauzatzeko hainbat prozesu egiten ditugu. Lehenik eta behin, margotu behar dugun espazioa aztertzen dugu, ondoren, bi marrazki guztiz pertsonalizatuak egiten ditugu aurrekontu batekin. Azkenik, bezeroak gure eskaera onartzean, lanean hasten gara.

Kontatu proiektuaren inguruan egin duzun akats bat eta bertatik ikasitakoa.

Hasieran, proiektu bakoitzaren benetako lana ez genuen ondo baloratzen, ez ginen konturatzen lau pertsonen sartutako orduak prezio bat zutela eta aurrekontua egiteko orduan egin genituen kalkuluak nahiko abstraktuak izaten ziren.

LEINNen talde handietan sortzen eta ikasten duzue, zer ikasi duzue zure taldekideengandik eta Hormart proiektutik?

LEINNen, taldean lan egiteak garrantzia handia du eta ulertu beharra dago, bakoitzak bere motxila edota historia la duela. Proiektu honekin ikasi dugu, ezinbestekoa dela, eta guztiak oso baliotsuak direla. Guztiok ondo marrazten ez dakigun arren, bakoitzak bere espezialitatean gauza ezberdinak aportatu ahal ditu eta hori da LEINNI eta Hormarti balioa ematen diona. Gainera, konturatuta gara konstantzia eta diziplina ezinbestekoak direla emaitza onak lortzeko.

Nola eraldatu du LEINNEk zuen bizi-tza?

Taldeko kideak oso desberdi-

nak ginen hasieran. Urtebete eta bi hilabeteren ondoren, gure lan egiteko modua eta beste pertsonekin erlazionatzeko modu guztiz desberdinak dira. Esperientzia asko bizi ditugu denbora honetan eta horietatik asko ikasi dugu. Esperientzia eraldatzaileena Berlinek elkarrekin bizituen hilabetea izan zen. Izan ere bertan gure artean izan genituen hainbat gatazka konpontzen eta lan kide bezala erlazio ona berreskuratzen ikasi behar izan genuen. Argi dagu LEINNen guztiok garapen pertsonal eta profesional handia izan dugula.

Zer esango zenuke LEINN buruz?

Praktikaren bidez benetako ekintzailtzara bideratuta dago eta etorkizuneko liderak izateko prestatzen gaitu, lidergoan, sormenean eta berrikuntzan oinarrituta. Geur burua eta besteak gidatzen ikaste dugu, pertsona bakoitzak erritmo eta prozesu propioa duela ulertuta. Ibilbidetik pertsona bakoitzak bere garapenean duen bide bakarra baloratze eta errespetatzen irakasten dugu, baita esperientzia eraldatzaile bat elkarrekin eraikitzen ere.



Euskarazko Produktuen Katalogoa erabiltzen duten guztien zentzumenak dantzan jarriko dituzten eskaintza prestatu dute Hego Euskal Herriko udal eta mankomunitatetako ehun Euskara zerbitzu baino gehiagok, *Jolastu, dastatu eta partekatu* lelopean. Ohi bezala, 0-12 urte arteko haurrei zuzendutakoa da produktu sorta bat, eta 12-16 urte arteko nerabeentzat bestea. Urteko zein garaitan gauden kontuan izanda, sustatzaileek nabarmendu dute "seme-alabei edo ingurukoei euskarazko liburu, musika, jostailu edota jokoak erosi eta oparitzeko aukera paregabea" dela. Horrekin batera, gogorarazi dute aurten 26. aldiz kaleratu dutela aipatu bilduma hori.

Bi hamarkada baino gehiago daramatzate euskarazko produktuen katalogoa herriarren eskura jartzen, eta, eskaintzak erakargarri izaten jarrai dezan, itxuraldatu egiten dute maiz. Gauzak horrela, jakinarazi dute paperezko edizioak eta "etengabe" eguneratzen duten atari digitalak (www.katalogoa.eus) "azal berriak" estreinatu dituztela aurten.

Atari digitalean, 10.000 erreferentzia baino gehiago

Paperaren gisako euskarri fisikoek oraindik garrantzi handia badute ere, gero eta pisu gehiago irabazten ari da euskarazko produktuen katalogoaren atari digitala: webgune horrek 10.000 produktu baino gehiagoren erreferentziak jasotzen ditu dagoeneko. "Bizi-bizirik" dagoen atari digitala da, eguneratuta mantentzeaz arduratzen diren

Euskaraz jolastu, dastatu eta partekatzeko

Hego Euskal Herriko makina bat udalek euskarazko produktuen katalogoa ondu dute aurten ere, elkarlanean. Tartean dira, nola ez, Buruntzaldea eskualdeko seiak: eskolen bidez banatuko dituzte Andoain, Hernani, Urnieta eta Usurbilek; Lasarte-Oriak, aldiz, etxez etxe; eta, Astigarragak, azkenik, eraikin publikoetan eta liburu dendetan



Durangoko Azoka ate joka dugun honetan, Euskarazko Produktuen Katalogoa erabiltzea lagungarri izan daiteke.

KATALOGOAREN ATARI DIGITALEAN 10.000 PRODUKTU BAINO GEHIAGO DAUDE AUKERAN

Langileek kendu egiten dituztelako dagoeneko deskatalogatuta dauden produktuak, sortzaileek ondu dituzten berriengatik ordezkatzeko. Hori horrela izanik, www.katalogoa.eus-en sartzen direnek aukera izango dute 0-12 urte artekoentzako (7.706 produktu daude gaur-gaurkoz) nahiz 12-16 urte artekoentzako (3.428 produktu daude gaur-gaurkoz) liburu, disko eta bestelakoak ezagutu eta begiz jotzeko, atal bakoitzak bere direktorio propioa duelako. Hartara, tipologia bakoitzeko produktuen bilaketa nabarmen erraztu eta hobetzen da, arrazoi honengatik: produktuak titulu, argitaletxe, autore, adin tarte edota prezioaren arabera bistara daitezkeelako. Hori egin ostean erabiltzaileen batek produkturen bat erosi nahi badu, argitaletxearen denda birtualera sartu ahal izango du, *Non eskuratu* botoia sakatuta.

Paperezko 50.000 eskuorri banatuko dituzte egunotan

Egunotan banatuko dituzte euskarazko produktuen katalogoaren 50.000 ale Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan. Azken urteotan egin izan duten bezalaxe, euskarri horretan editatzen duten eskuorriak bi atal nagusi izango ditu: azal batek sarbidea emango die 0-12 urte arteko haurrentzako eta euren gurasoentzako eskaintzara, eta, bestea, 12-16 urte arteko nerabeek dituzten aukeretara. Bilaketa nabarmen errazteaz gain, adin



Ama-semeak, katalogoa kontsultatzen.

"Olentzero eta Mari Domingiri zer eskatu behar diogun erabakitzekeo tresna oso egokia da"

Eguberriak iristear daude eta ez dira gutxi Euskarazko Produktuen Katalogoa erabiltzen duten familiak gure eskualdean, Olentzero eta Mari Domingiri zer eskatu erabakitzekeo. Hala egin izan du, esaterako, Puyada-Zatarain familiak. "Tresna oso egokia da, erabiltzeko erraza eta gauzak errazten dizkiguna. Eta gustatzen zaigu, batez ere,

euskarazko eskaintza dakarrelako". Etxean jasotako paperezko eskuorria erabili izan dute normalean baina begiratu izan dute atari digitala ere, oparitarako eskatu beharrekoa zerrendan idazteko gero. Zeregin hori familian egiten dute gainera, katalogoa eskuetan hartuta edo ordenagailuaren aurrean.

Onartu dute batzuetan ez zaiela erraza egiten produktu erakargarri asko dakartzalako katalogoak, "ongi sailkatuta" eta "garrantzitsua den informazioarekin" gainera: adin tarteak, prezio orientatiboa...

Aurten ere erabiliko dutela aurreratu dute eta familia guztiei gomendatu diete paperean nahiz sarean katalogoa begiratzea.

tarte bakoitzari "nortasun propioa" ematea izan da diseinatzaileen helburua.


Ekimen honen sustatzaileek nabarmendu dutenez, paperezko katalogoan erabiltzaileek ez dituzte topatuko atari digitalean bezainbeste produktu, baizik eta atalka (jostailuak eta jokoak, musika, DVD filmak, aplikazioak, aldizkariak, liburuak, gurasoentzako materiala eta komikiak) antolatutako hautaketa bat baizik.

Eskualdeko udaletako Euskara zerbitzuek jakinarazi dutenez, Buruntzaldea osatzen duten sei udalerrietatik lautan (Andoain, Hernani, Urnieta eta Usurbil) eskolen bitartez banatuko dituzte katalogoak; Lasarte-Oriakoak, berriz, etxez etxeko banaketa egingo du; eta, Astigarragak, udalerrri horretako eraikin publikoetara eta liburu dendetara eramango ditu eskuorriak.

Nobedadeen buletina

Euskarazko Produktuen Katalogoaren nobedadeak etengabe berritzen dituzte atari digitalean. Horien berri unean-unean izan nahi dutenek aukera paregabea dute www.katalogoa.eus/buletina helbidean harpidetu eta berrikuntzaz betetako hamar buletin jasotzeko urtearen buruan. Helburua hauxe da: merkatuan aurki daitezkeen euskarazko azken nobedadeak ere erabiltzaileen eskura jartzea, modu erraz batean.

PAPEREZKO 50.000 ESKUORRI BANATUKO DITUZTE ARABA, BIZKAIA, GIPUZKOA ETA NAFARROAN



JOSTAILUAK ETA JOKOAK



Adarbakarrak




Animalien mundua

LIBURUAK



Amestoki goxoa



Andrea

MUSIKA



Txaparen kaxa magikoa



Batetik bestera

**DVD FILMAK
ALDIZKARIAK
GURASOENTZAKO MATERIALA**


**APPak
KOMIKIAK**



Liburuak 12-14 urte



Albo ondorioak



Argia aurkitzeko bidaia



Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian

Musika




Behin biziitza



Azken batean

Komikiak



Itsaso gaztaren balada bat



Mugako dragoiak

Liburuak +14 urte



Gazako equerokoa



Izarrak eta haitzak



Narrazioak eta olerkiak



Gipuzkoa Sortzen taldeek garaipena erdietsi dute

Ohorezko B mailako zein Euskal Ligako 2. mailako neurketak jokatu dituzte Gipuzkoa Sortzen taldeek Gasteiz eta Michelin kirol gunean hurrenez hurren. Biek ala biek euren aurkariak gainditu dituzte; Euskal Ligako taldearen etxeko bigarren garaipena da

Txintxarri

Euskal Ligako 2. mailako Gipuzkoa Sortzen taldeak garaipena eskuratu zuen Michelin kirol gunean. Hilaren 23an, Txingudi Zaisaren aurkako neurketa desorekatua jokatu zuen; irundarrek bederatzita jokalaririk bakarrik izan zituzten jokoan. Hala ere, mugako jokalariek ez zuten amore eman eta azkenera arte borrokatu ziren.

Gogotsu atera ziren txinguditarrek eta lehen minutuan ezustekoa eman zuten entsegu eta gauzatzea eginez. Bi minutuetara beltzek berdinu eta etxekoen festa hasi zen. Guztira sei entsegu eta lau gauzatze egin zituen Gipuzkoa Sortzenek eta era horretara, 38-7 iritsi ziren atsedenaldira.



Neurketako touche bat. TXINTXARRI

Bigarren zatian, minutu batzuetako borrokaren ostean, erritmoa hartu eta zazpi entsegu eta gauzatze bat egin zituen

etxeko taldeak aldea handitzeko eta 87-7 amaitu zen neurketa.

Gipuzkoa Sortzen taldean Beñat Arozena Peña eta Jokin Beloki Chivite herritarrak izan ziren lehiak.

Ohorezko mailan ere ondo

Egun bat beranduago, Gasteizko Gamarrako zelaian (Araba) Ohorezko B mailako Gaztedi eta Gipuzkoa Sortzen taldeen arteko partida izan zen.

Fran Puertas Soto herritarrak zuzendutako taldea nagusi izan zen hasieratik. Bigarren zatian, 0-32 zihozazela gasteiztarrek marra igarotzea lortu zuten lehenengoz. Gasteiztarren bi entsegu eta gauzatzeren ostean, beltzek entsegu egin zuten. Amaieran 14-37 gailendu zen Gipuzkoa Sortzen.

Beltzak, selekzioekin lehian

Beltzak RTko harrobiko kirolariak Euskadiko zein Espainiako selekzioarekin lehiatu zuten hilaren 23an eta 24an.

Zarauzko Asti zelaian 18 urtez azpiko Erkidegoen arteko Espainiako txapelketako jardunaldia jokatu zuen Euskadik Kataluniaren aurka.

Lander Zabala Ugartemendia eta Eneko Sanchez Martinez herritarrak hamabostekoan jokatu zuten eta Sanchezek hamahirugarren minutuan markagailua ireki zuten entsegu batekin. Atsedenaldira 15-5 iritsi baziren ere, Kataluniak entsegu gauzatze eta lau zigor ostekorekin itzulua eman zion neurketari, 15-26. Hamar minutu faltan Euskadik aldea txikitzea lortu zuten entsegu eta gauzatzearekin. Azken minutura arte borrokatu zuten arren, ezin izan zuten Euskadik Katalunia garaitu.

Antzeko egoera bizi izan zuten Alex Saleta Atorrasagastik Espainia eta Amerikako Estatu Batuen arteko norgehiagokan, Madrilan. Herritarrak markagailua ireki zuten eta hamargarren minuturako 10-0 zegoen talde gorria. Baina amerikarrak ez ziren besoak gurutzatuta geratu eta 10-14 aurre hartu zuten atsedenaldira baino lehen.

Bigarren zatian entsegu batekin alde handitu zuten AEBk (10-19) eta gutxira zigor ostiko bati esker gerturatu ziren lehoiak. Aurkariak entsegu eta gauzatzearekin ihes egitea lortu zuten, 13-26. Baina Espainiak ez zuten amore emango eta bi entsegurekin 23-26 gerturatu zen. Azken minutuan aukera bat ere izan zuten gorriek, baina izan zuten puntuatu.



Zabala eta Sanchez, neurketaren ostean. J. SANCHEZ

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONALA
Ostadar SKT - Antiguoko KE Larunbata. 16:25. Michelin kirol gunean.
GORENGO MAILA
Allerru KE - Ostadar SKT Igandea. 18:30. Plazeta, Lezon.
ERREGIONAL I. MAILA
Texas Lasartearra CF - Orioko FT B Larunbata. 18:20. Michelin kirol gunean.
Ostadar SKT - Axular Lizeoa B Igandea. 13:35. Michelin kirol gunean.
OHOREZKO J. M.
Sanpedrotarra FE - Ostadar SKT Larunbata. 17:30. Trintxer, Pasaiain.
JUBENILEN GORENGO MAILA
Ostadar SKT - SEgura Aizkorri FT Larunbata. 16:30. Irene Paredes, Legazpin.
JUBENILEN I. MAILA
Texas Lasartearra CF B - Arrupe Chaminate CDDFC Igandea. 09:45. Michelin kirol gunean.
Martutene KE B - Ostadar SKT Larunbata. 15:30. Martutenen.
OHOREZKO K. M.
Ostadar SKT - Lagun Onak CD Larunbata. 11:20. Michelin kirol gunean.
KADETEEN I. MAILA
Ostadar SKT (neskak) - Urnieta CD Larunbata. 13:05. Michelin kirol gunean.

INFANTIL HANDI, KOPA
Ostadar SKT - Oiartzun KE Larunbata. 14:50. Michelin kirol gunean.
INFANTIL TXIKI, KOPA
Ostadar SKT - Igeltegi de Donostia CF Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.
ARETO-FUTBOLA
I. MAILA
Tiakun AF KK - Eguzki Arkupe Rehab. Ostirala. 22:30. Zubiaurre kirol., Azkoitian.
III. MAILA
Eguzki ISU Leihok - Izarraitz AFT Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.
GAZTEEN MAILA
Eguzki Bod. Ayasa - Laskorain KE Larunbata. 13:30. Maialen Chourraut kirol.
KADETE MAILA
Eguzki Goxokis Goxuak - Antiguoko KE CLC Suministros Industriales Igandea. 11:00. Michelin kirol guneako pil.
INFANTIL MAILA
Eguzki Bar Escalerilla - Eskoriatza KE Igandea. 09:30. Michelin kirol guneako pil.
Mondrate CD - Eguzki Andatza Taberna B Igandea. 10:00. Musakola kirol., Arrasaten.
SASKIBALOIA
II. MAILA
Ostadar SKT - Drunkat Hoops Igandea. 11:30. Maialen Chourraut kirol.

III. MAILA
Ostadar SKT - Ast. Mundarro KE Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.
J. ERRENDIMENDUA ZILARRA
Ostadar SKT - Alejandro Goya TAKE Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.
J. PARTAIDETZA
Bera Bera Uliia - Ostadar SKT Igandea. 10:00. Paco Yoldi kirol., Donostian.
K. ERRENDIMENDUA URREA
Ordizia - Ostadar SKT Larunbata. 09:00. Majori kirol., Ordizian.
K. ERRENDIMENDUA ZILARRA
Panelfisa TAKE - Ostadar SKT Larunbata. 11:45. Usabal kirol., Tolosan.
KADETE PARTAIDETZA
Ostadar SKT - Bergara KE Lacor Ibilii Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
INFANTIL PARTAIDETZA
Ostadar SKT Urdina H. - CD Internacional Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
Ostadar SKT Beltza H. - Plasigaur Imaz Igandea. 11:30. Michelin kirol gunean.
BOLEIBOLA
EUSKAL LIGA, II. MAILA
Ostadar SKT - D'Elhuyar Logroño Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.
SENIOR MAILA, AURRETIKO FASEA
Ipar Titanak - Ostadar SKT Larunbata. 17:30. Bidebieta kirol., Donostian.

KADETE MAILA, AURRETIKO FASEA
Ostadar SKT A - Hernani KE 3 Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
Ostadar SKT B - Usurbil Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
INFANTIL MAILA, AURRETIKO FASEA
Ostadar SKT - Oarso Urdina Larunbata. 13:30. Beraun pil., Erreterian
PILOTA
NEGUKO TX., NAGUSIAK
Intxurre - Intza KE Igandea. 10:15 (2. partida). Elorri pil., Alegian.
GIP. TX., INF. 1. MAILA
Aretxabaleta - Intza (Jauregi) Larunbata. 17:00 (2. partida). Aretxabaletan.
GIP. TX., INF. 2. MAILA
Intza KE (Lopez) - Añorga Ostirala. 18:15 (1. partida). Loidibarren pil.
Intza KE (Maiz) - Txulobi Ostirala. 18:15 (3. partida). Loidibarren pil.
EKIALDE TX., INF. 2. MAILA
Intxurre - Intza KE (Lasa) Igandea. 10:15 (1. partida). Elorri pil., Alegian.
GIP. TX., ALEBIN 1. MAILA
Intza KE (Jauregi) - Ataun Ostirala. 18:15 (2. partida). Loidibarren pil.
ERRUGBIA
EUSKAL LIGA, I. MAILA
Eibar RT - Gipuzkoa Sortzen Larunbata. 12:00. Unbe kirol gunea, Eibarren.

EUSKAL LIGA, II. MAILA
Urbealde Mungia - Gipuzkoa Sortzen Larunbata. 16:00. Abzurizubi zelaia, Mungia, Bizkaian.
KIROL EGOKITUA
ESLALOM JARDUNALDIA
Ostadar Inklusioa taldeak Gipuzkoako Kirol egokituen Federazioarekin batera gorpil aulkiko eslalom jardunaldia antolatuko du. Larunbata. 16:30. Michelin kirol guneako pista estalian.
ATLETISMOA
PROBA LIBREAK
Lasarte-Oriako atleten xabalina jaurtiketa eta jauzi hirukoitzeko aire libreko proba izango dute. Igandea. 10:00. Kote Olaizola estadioa, Donostian.
LASTERKETAK
BIKOTE MISTOEN KROSA
Lasarte-Oriako korrikalariak Zarauzko bikote mistoen krosetan parte hartuko dute. Igandea. 11:00. Zarautzen.
BOLUNBURU KROSA
Herriko hainbat kros lasterkerik 73. Bolunburu orogarri krosa lehiatuko dute. Gipuzkoako txapelketa jokatu da proban. Igandea. Goiza. Arrate zelaia, Eibarren.

Herritarrak, Gipuzkoako txapelketako podiumetan

Maila ezberdinetako Gipuzkoako xake txapelketak jokatu dituzte Taula Xake Klubeko kideek; Jose Ignacio Echeverria Superbeterano mailako txapeldun izan da eta hirugarren mailan, Erlantz Sanchez gazteak brontzeko postua eskuratu du

Nerea Eizagirre

Taula Xake Klubeko kideek banakako Gipuzkoako txapelketak lehiatu dituzte urritik azarora. Maila ezberdinetan aritu dira Bigarren, Hirugarren zein Superbeterano mailetan eta bitan izan dira herritarrak lehen postuetan. Jose Ignacio Echeverria Eleicegui garaile izan da Superbeterano kategorian eta hirugarren mailako lehian Erlantz Sanchez Huertak brontzeko postua eskuratu du. Sanchezek, gainera, bigarren mailarako igoera eskuratu du. Eurekin eta Taulako kide eta eskolako arduradun Alex Sanchez Andresekin bildu gara banakako txapelketaren, datorren urteko taldekako lehiaren eta xake eskolaren gainean hitz egiteko.

Superbeterano lehiaketan bigarren urtez lehiatu da Echeverria eta bietan podiumean izan da. Irunen jokaturako txapelketan sei partaide izan dira. Federazioak 65 urtetik gorakoentzat antolatutako txapelketa dela azaldu digu xake jokalariei beterranoak eta laugarren edizioa duela.

Taula taldeko kidea pozarren dago aurten lortutako garaikurrarekin eta egindako jokoarekin: "Iazkoaren antzera berdinketa hausteko neurketa jokatu behar izan nuen. Iaz bigarren geratu



Ezkerretik eskuinera, Echeverria, Erlantz eta Alex, Superbeterano mailako koparekin. TXINTXARRI

nintzen eta aurten zorteak nire alde egin du, beraz txapeldun izan naiz". Eta hurrengo urtean ere maila horretan parte hartzeko prest agertu da.

Echeverriak azaldu moduan, "duela hiru urte itzuli nintzen xakean jokatzera. Urte luzez utzi dut, 40 bat-edo; Lasarte-Orian taldea zegoenean jokatu nuen. Orain ez dut lehen nuen maila, hori ezin dut berreskuratu, baina gustura ari naiz. Xakean ibiltzea gustuko dut. Adimena martxan mantentzeko modu ezin hobea da. Logika eta intuizioa landu behar dituzu".

Baina Echeverriak ez du Superbeterano mailan bakarrik jokatu, Bigarren mailan ere lehiakide izan da. Herritarrak onartu duenez maila horretan ez du lehiaketa ona egin: "Hobeto jokatzeko gero, lehen lauen artean egongo nintzateke. Baina bi neurketetan kale egin nuen eta horri itzulia ematea zaila da horrelako lehiaketetan". Azken neurketa irabaziz gero, lehen lauen arteko berdinketa hausteko jardunaldian izango litzatekeela ere jakitera eman digu: "Teorian hoberena zenaren aurka jokatu nuen eta berdinketarekin konformatu behar izan nuen".

Hiru kide, Hirugarren mailan

Bestalde, hirugarren mailako lehian taldeko hiru kide izan dira parte hartzen: Alex Sanchez Andres, Juan Cruz Figueras Hernandez eta Erlantz Sanchez Huerta. Azken horrek lortu du emaitzarik onena, hirugarren postua. Figueras bederatzigarren izan da eta Alex Sanchez, aldiz, hamabigarren.

Erlantz pozarren dago lortutako emaitzarekin, nahiz eta azaldu modura zaila egin zaion txapelketa: "Jokaturako neurketa batzuetan sufritu dut. Hobeto egitea nuen".

Horrez gain, hurrengo urtean bigarren mailan jokatu du 12 urteko jokalariek. Taldekide Echeverria aurkari izango du 2025eko bakarkako lehian eta txantxen artean taulak eskainiko diola esan du jokalariei beterranoak; Erlantz, aldiz, "ikusiko dugu" batekin erantzun du.

Maila aldaketa handia izango dela aipatu digu xake jokalariei gazteak. Hala ere, maila horretan dauden jokalarien aurka taldekako txapelketan -2024an Gros xake taldean jokatu du gazteak- aritu dela aipatu du eta hurrengo urtean lan ona egin dezakeela uste du: "Ez da erraza izango, baina saiatuko naiz".

Taldekako lehia

Orain 2025eko taldekako txapelketa dute buruan Taula Xakeko kideek. Otsailetik apirilera jokatu da eta hirugarren mailako taldean xake eskolako gaztetxoek lehiatzeko aukera emateko ideia dutela aurreratu dute.

Echeverria xake klubeko bigarren mailako taldeko kapitaina dugu eta Erlantz izango du 2025ean taldekideetako bat. Aurtengo lehiaketan Taula bigarren mailatik lehenera igotzeko zorian egon da eta hurrengo urtean helburua lor-

tuko dutela uste du beterranoak. "Hirugarren geratu ginen eta ezin izan genuen txartela lortu. Talde onak zeuden eta Eibarrekoak ezin izan genituen garaitu. Baina aurten lortutako dugu. Talde polita osatuko dugu", onartu du.

Echeverriak gogoratu modura, urteak dira xake talderik ez zegoela Lasarte-Orian eta herrian jokalariei handiak dauden arren, Donostian, Andoainen edo Marllaxka taldeetan jokatzeko maila ezberdinetan, hala nola, Euskal Ligan. "Taldea ederra sortzeko jokalariek daude, baina horiek maila horretan jarraitu nahi dute lehian eta beste batzuek kontu pertsonalengatik ezin dute bat egin", adierazi du.

Horrez gain, Taula Xake Kluba eta taldeak mantentze aldera euren planteamendua azaldu digu: "Ez dugu herriko taldea berriro desgertzea nahi. Beraz, gure helburua taldeak mailaz igotzea da eta pixkanaka gazteak hirugarren mailako taldean sartzen joatea". Eta Echeverriaren ustez bidea onean doaz, "2022an hasi ginen eta aurten ia bigarren mailara igo ginen".

Era horretara, harrobia lantzeko bidea izango da azken talde hori Alex Sanchez xake eskolako arduradunak azaldu modura: "Ostiraletan haur eta gaztetxo talde batekin biltzen gara eta horiek hama bi urte egin ahala, jokatzeko aukera emango diegu talde horretan. Beraien taldea izango da. Beraz, etorkizunean heldu bat edo bi eta gaztetxoek osatua egongo da talde hori".

Era berean, taldea mantentzeko jokalariek behar dituztela azaldu dute eta horregatik herritarrak eta, batez ere, haurrak animatzen dituzte ostiral arratsaldeetan Danok Kide elkartearen lokalean dituzten saioetara hurbildu eta xakea probatzera.

Euskadik, ezin Espainiako txapelketan aurrera egin

16 urtez azpiko Erkidegoen Arteko Espainiako Txapelketako sailkapen fasea jokatu dute bi herritarrek

Txintxarri

Eguzki Areto Futbola klubeko Aratz Fuentes Ramos eta Markel Rodriguez Freire herritarrak hilaren 22tik 24ra Granadan (Andaluzia) izan dira Euskadiko selekzioarekin lehian; 16 urtez azpiko Espainiako Erkidegoen

arteko txapelketako sailkapen fasea jokatu dute. Melilla, Andaluzia eta Kanariar Uharteetako taldeak izan dituzte aurkari eta ezin izan dute azken faserako txartela eskuratu.

Lehen neurketan Melilla izan zuten aurkari; 5-3 galdu zuten

Euskadik. Andaluziaren aurka jokatu zuten bigarren egunean eta 5-2 amaitu zen neurketa. Azken egunean, aldiz, Kanariar Uharteetako taldea izan zuten aurrez aurre eta seina berdindu zuten.

Bi herritarrek hiru norgehiagokak jokatu dituzten arren, Fuentes hasierako bostekoan kapitain modura aritu zen Melilla eta Andaluziaren aurka. Jokalariei gazteek golak ere egin zituzten Kanariar Uharteekin izandako borrokan, bakoitzak bina gol.



Txapelketa jokatu duen 16 urtez azpiko taldea. EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA

Gurpil aulkiko eslalom jardunaldia, kirol gunean

Ostadar Inklusioa sailak eta Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak, udalaren laguntzaz, gurpil aulkiko eslalom modalitateko markak hartzeko jardunaldia antolatu dute. Herritarrek gonbidatu dituzte saiora hurbildu eta kirola ezagutzera

Txintxarri

Gurpil aulkiko eslalom proba ezberdinez gozatzeko aukera izango da hilaren 30ean, 16:30ean, Michelin kirol guneko pista estalian. Ostadar Inklusioa sailak eta Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak Lasarte-Oriako Udalaren laguntzaz Gipuzkoako kirolariei zuzendutako jardunaldia prestatu du.

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioko ordezkari Eneritz Mayorak azaldu modura, "eslalom ezgaitasun fisikoa eta garun paralisia duten kirolariek praktikatzen duten kirol espezifiko da". Kirolari horien ibilbidea bermatzeko, hau da, Espainiako estatu mailan lehiatzeko markak egin ahal izateko gure lurraldean jardunaldiak eta txapelketak antolatzen ditu federazioak eta horietako bat izango da Lasarte-Oriaren egingo dena.

Ostadar Inklusioa taldeko zein Donostiako Kemen KEko hamar bat kirolarik parte hartuko dute



Kirol erakunde zein udal ordezkariak jardunaldiaren aurkezpenean. TXINTXARRI

eta maila ezberdinetako erlojupeko zein banakako kanporaketa saioari egingo diete aurre zirkuitu itxi batean.

Eslaloma egiten duten kirolariak euren mugak gaintzen dituzten pertsonen eredutzat aurkeztu ditu kirol zinetzotzi Pildainek eta hori dela eta, udalak aniztasun funtzionala sustatzen duten ekimenak lagunduko dituela adierazi du.

Azkenik, Ostadarreko Javi Camachok erakundeei eta lagun-

tzaileei eskerrak eman eta jardunaldira hurbiltzen diren herritarrek "familia giroa" aurkituko dutela azpimarratu du: "Kiroltasun eta adiskidetasun handia dago guztien artean. Eta ikusle modura asko gozatu daitekeen kirola dela uste dut".

Horregatik guztiagatik, kirol erakundeetako zein udal ordezkariak herritarrek gonbidatu dituzte kirol gunera gerturatu, kirola ezagutu eta jardunaldia ikustera.

Texas Lasartearra B taldea, jubenilen derbian garaile

Ostadar C eta Texas Lasartearra B taldeek denboraldiko bigarren lehia jokatu dute Michelin kirol gunean

Txintxarri

Futbol denboraldia aurrera doa eta jardunaldiz jardunaldi Lasarte-Oriako taldeek txanponaren bi aldeak jasaten dituzte. Lau mailatan, gainera, Texas Lasartearra CF eta Ostadar SKT-ko taldeek bat egiten dute eta azken hilabeteetan hainbatetan derbiez gozatzeko aukera izan da Michelin kirol gunean. Azken jardunaldian, esate baterako, jubenil I. mailan eman zen berriro Lasarte-Oriako taldeen norgehiagoka.

Bigarren itzuliari eman zioten hasiera zuri-urdinen B taldeak eta urdin-beltzen C ekipoak hilaren 17an eta denboraldi honetan bigarrenen aurrez aurre izan ziren bi taldeak 23an. Bietan Iker Moreno Castresanak zuzentzen duen Texas B izan da garaile; joanekoan 4-0 gailendu zen eta oraingoan 1-5 irabazi du.

Lehen minutuetan borroka handia izan zen bi taldeen artean. Baina zazpigarren minutuan aurreratu zen talde zuri-urdina. Hamahiru minutu behar izan zituen taldeak berriro Ostadarren atea zulatze-ko eta 23. minutuan hirugarrena egin zuen. Ostadarrek 33.



Neurketako irudia. TXINTXARRI

minutuan lortu zuen ahaleginaren fruitua eta 1-3koa jarri zuen markagailuan. Atsedendirako hiru minutu faltan Texas 1-4koa egin zuen eta bigarren zatian, aldiz, gol bakarra egitea lortu zuen talde zuri-urdinak.

Era horretara, Texas Bk garapenaren bidean jarraitzen du eta multzoko bigarren postuan da (22 puntu) sailkapenburutik bost puntura; neurketarik galdu ez duen Arrupe Chaminade C. Ostadar SKT Ck, aldiz, bi garapen erdietsi ditu oraingoan eta zortzigarren postuan da.

Buruntzaldea IKTko txikiak, ederki euren hitzorduetan

Benjaminek euren lehen jardunaldia jokatu dute. Alebinek, aldiz, ligako bigarren saioari egin diote aurre

Txintxarri

Buruntzaldea IKTko kideek hitzordu bikoitza izan zuten hilaren 23an Majori kiroldegian, Ordizian. Benjamin jaialdia izan zuten lehenik igeriketa taldeko hamalau kidek. Gaztetxoek krol hanken errelebu txiki bat izan zuten jardunaldia hasteko. Ostean gehienek 50 m. libre probari egin zioten aurre eta bakar batzuk 100 m. libre probarekin ere ausartu ziren. Saioari bukaera emateko 6x25 m. bizkar errelebo mistoan ere parte hartu zuten Buruntzaldea IKTko ordezkariak.

Haurren lehen lehiaketa izanik urduritasuna nagusi zen, baina igeriketako arduradunek aipatu dutenez: "ausardia osoz ekin zieten euren probei. Egin beharrekoak egin ostean, nabaria izan zen gure txikiek aurpegian marraztua zuten irribarrea".

Jarraian Alebin mailako bigarren jardunaldia burutu zuten. Lehenik 25 m. bizkar hanken probatxo egin zuten eta ostean, jardunaldiari zegozkion 200 m. lau estilo, estilo libreko 100 metroko eta 50 m. bizkar probetan parte hartu zuten gazteek. 4x100



Benjamin mailako igerilariak lehenegoz parte hartu dute jardunaldi batean.

m. estilo libreko errelebo ere lehiatu zuten.

Zortzi ordezkari izan zituen igeriketa taldeak eta guztiek euren markak ondu zituzten probaren batean (ikus ondoko koadroa).

Lortutako probetako hobekuntzez gain, Gipuzkoako Txapelketa- tarako gutxienekoa lortu zuenik

ere izan zen; Aitor Ormazabalek 200 m. lau estiloko udako txapelketarako giltza lortu du.

Taldeko prestatzaileek adierazi dutenez alebin mailako igerilarien hobekuntza nabarmena izan da eta epe laburrean teknika eta taktika landuko dituztela azpimarratu dute.

- **Aitor Ormazabal**
200 m. lau estilo eta 100 m. libre.
- **Izaro Bautista**
200 m. lau estilo eta 100 m. libre.
- **Irai Jauregi**
200 m. lau estilo eta 100 m. libre.
- **Aiala Erro** 200 m. lau estilo eta 100 m. libre.
- **Lier Garmendia**
200 m. lau estilo eta 100 m. libre.
- **Kerman Miguel**
200 m. lau estilo eta 100 m. libre.
- **Urko Azpiazu**
50 m. bizkar estilo eta 100 m. libre.
- **June Apeztegia**
100 m. libre.

eguberrietako kanpaina

Erosi Lasarte-Orian eta lortu Eguberrietako sorta aparta!

Lasarte-oria 2024

Abenduaren Zetik 20ra

KONTSULTA EZAZU ESTABLEZIMENDU PARTE-HARTZAILEEN ZERRENDA

VENTANAS ALCAR

CALZADOS LEDER

FERRETERÍA SUKOA

PELUQUERÍA CABALLEROS ANA

PELUQUERÍA MARBELL

URRUZOLA MERTZERIA

BAR PATRICIO

ALBA MODA

ELECTRICIDAD ARREGUI

IMAGINE JANTZI DENDA

BIZKER RÓTULOS

ORMAZABAL LORADENDA

PELUQUERÍA MARIAN OLAIZOLA

MERCERÍA OLMÍ

ORBELA EKODENDA

ZAPATERÍA ITURBE

BERASATEGI KAFAK

DECO 75 TEXTIL HOGAR

ADATS ORRAZTEGIA

ADMON. DE FINCAS MILLA

MABEL MODA

BIDEO LAGUNAK

PODOLOGÍA AMAIA OLONDRIS

NOGUES MODA

SANTANA INFORMÁTICA

PERFUMERÍA MAIANE

OIHANA ESTETIKA

FERRETERÍA-CERRAJERÍA JOSEMA

TEJIDOS FERNÁNDEZ EHUNAK

CLÍNICA DENTAL ALDAZ

MULTIÓPTICAS LASARTE

PELUQUERÍA BEA

CAFÉ-BAR BUENETXEA

ÓPTICA LIZARRI

BOTE TATTOO

VENTANAS ISU LEIHOAK

ZORION AGURRAK



Leire
Zorionak Leire!!
Espero dugu zure urtebetetzea ondo ospatzea! Egun polita pasa! Maite zaitugu! Maialen, aiton-amona eta familien partetik

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri, jaioberri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak

Internet

· txintxarri.eus/
zorionagurra.
· Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.
· Zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

· Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK
ARTE JASOKO DITUGU

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 29	DE MIGUEL
LARUNBATA, 30	ORUE
IGANDEA, 1	ORUE
ASTELEHENA, 2	LASA
ASTEARTEA, 3	GIL
ASTEAZKENA, 4	ACHA-ORBEA
OSTEGUNA, 5	KNIESE
OSTIRALA, 6	GANDARIAS-URIBE
LARUNBATA, 7	GANDARIAS-URIBE
IGANDEA, 8	GANDARIAS-URIBE
ASTELEHENA, 9	ORUE
ASTEARTEA, 10	DE MIGUEL
ASTEAZKENA, 11	LASA
OSTEGUNA, 12	GIL

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
KNIESE: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Florida Farmazia: Mañe I Flaquer plaza 6, Hernani. 943-57 64 77

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINAK: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112



Jaio da!

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali hauraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

EROSI

Garaje bat erosiko nuke herri erdigunean irekia edo itxia. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

ERRENTAN EMAN

Bi neska gazte gara eta pisukide baten bila gabilta. Etxea Zabaletako auzoan dago. 200 euro dira logelaren prezioa gehi gastuak aparte. Interesatu bazaude idatzi edo deitu telefono honetara: 663 93 51 76.

ERRENTAN HARTU

Etxe bat alokatu nahiko nuke. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Apartamentu txiki bat alokatu nahi dut, epe luzerako. Goizez deitu: 687 05 82 12.

LANA

ESKARIA

Batzilergoko Bigarren mailako ikaslea naiz eta edozein irakasgaietako klase partikularrak emateko prest nago. Harremanetarako, 678 17 15 99.

BESTELAKOAK

DESAGERPENA

Ipar Martxako makilak ostu dizkidate. Mesedez eskuratu nahiko nituzke. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

HEZKUNTZA

12 urteko neska bati zatiak edo saio partikularrak emateko norbait behar dut. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

EMAN

Pitbull arrazako txakurra oparitzen da. 9 urte ditu eta baserrian

ohitua dago; oso ona da. Harremanetarako zenbakia: 687 35 95.

SALEROSKETA

Helduentzako trizikloa saltzen dut. Interesdunek 630 85 57 96 telefono zenbakira dei dezatela.

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera emateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

Zortzi eserleku dituen taxi lizentzia bat saltzen dut, Usurbilen lan egiteko. 677 37 34 66.

ESKUTITZA

Eskutitzak argitaratu nahi dituzten herritarrek hiru modu dituzte testua bidaltzeko: bulegora etotzea (Geltoki kalea 4, behe), txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo WhatsApp bidez, 688 68 35 10 telefonora bidaltzea. Idatzia orri hauetan publikatua izan dadin, izen-abizenak zeintzuk diren zehaztu beharko dute.

ESKERTZA

Inoizko elkartasun uholde handiena izan da aurtengo udazkenekoa

ERRIGORA

Ekoi zle, auzolangile, milaka kontsumitzaile... GUZTIOI MILA ESKER!

Inoiz saskien bidez bidalitako ekarpenik handiena jasoko du Agerreko (Nafarroa erdi eta hegoaldeko) euskalgintzak. 16.000 saski banatu dira aurtengoan!

Errigorako atek zabalki daukazue bertan modu desberdinetan parte hartzeko eta, gurekin harremanetan jarri nahiko bazenute, hauxe duzue helbidea: errigora.lasarteoria@gmail.com.

Zorionak eta jarrai dezagun tantaz tanta elkartasun uholde hau elikatzen.



txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administrataria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldúa eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak:

Xuban Urdalleta, Nikola Iraola, Nora Navarro, Aimar Hernandez, Gari Iraola, Iñigo Ibarburu eta Egoitz Epelde.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zuzeneko emanaldietan seikote hau ariko da ohol-tza gainean, Xabi Herrera herritarra (eskuinetik hasita, aurrenekoa) barne. TIRABIRA

Euskal reggae talde 'BAT'

Tirabira izena du Xabi Herrera herritarrak eta Iñigo Egiak sortu, gidatu eta gorpuztu duten proiektuak. Hemezortzi kantuz osatutako bi disko atera dituzte kolpe bakarrean eta zuzeneko lehen emanaldia egingo dute abenduaren 7an, Erretereriako Niessen aretoan

Iñigo Gonzalez Sarobe

"Euskal reggaearen basamortua" ureztatu nahi duenik bada, bertan "ganja landatzen" jarraitzeko. Iñigo Egiak eta Xabi Herrera *Xa2 Makulu* lasarteoriatarrek Tirabira taldearen egitasmoa sortu, landu eta aurkeztu dute: aurkezpen kontzertua Erretereriako Niessen aretoan emango dute abenduaren 7an, 20:00etan. Hori gutxi balitz, *BAT* izeneko lana kaleratu dute: hemezortzi kanta bi diskotan, "kolpe bakarrean". Proiektu horri buruz gehiago jakiteko, herritarrarekin elkartu da TXINTXARRI.

"Bidaia luzea izan da baina polita ere bai; oso pozik nago", aitortu du. "Makulu Ken taldearekin [aurtengo urtarrilean amaitu du ibilbidea] bira egiten ari ginen Ibiza eta Formenteran, 2019an. Egun batean, Iñigo [Egia] eta biok reggae musika entzuten

ari ginen eta esan zidan nire abesteko moduak bazuela estilo horren kutsua. 'Zergatik ez dugu proiektu bat hasten?', proposatu zidan". Hilabete batzuetara koronabirusaren pandemiak erabat aldatu zuen gizateriaren egunerokoa, norbera bere etxean itxita egotera. Tarte hori ederki baliatu zuen lasarteoriatarrek kantuak konposatzeko, egun askotan goizaldera arte lan egin da: "26-27 bat eraman nizkion Iñigori 2020ko udan". Une horretan hasi zen sortzaile batek izan dezakeen lan desatseginetako bat, kantu batzuk bi disko horietatik kanpo uztea: "Seme-alabak hiltzea bezala da". Egiak, hasieran, ia erotzat hartu zuen *Xa2 Makulu*: "Gau batean nire buruari esan nion, 'goazen, bi disko!'. Ezetx esan zidan Iñigok hasieran, baina, azkenean, baietz".

"2020ko uda eta gero buru-belarri jarri ginen proiektuarekin, baina mantso eta poliki joan da dena, bi arrazoi nagusigatik: garai horretan itxi ez zuten soinu enpresek gainerakoan lan karga hartu eta iritsi ezinik zebiltzalako, eta oso zaila egin zitzaigulako grabaketetarako musikariak topatzea, bizimodua atera ahal izateko mila lan eta egitasmotan murgilduta egon ohi direlako". Zailtasunak zailtasun, azkenean hamaika lagunak lagundu dute Egiarekin eta *Xa2 Makulu*arekin eta kolaboratzaile sare zabala eratu dute.

'BAT' LANA JALGI, ANDATZA ETA AVENIDA TABERNETAN ESKURA DEZAKETE HERRITARREK

"Gozamena izan da estudioko lana; oso ondo pasa dugu".

Jolasez betetako lana

Tirabira taldearen aurreneko lanak *BAT* izena du eta hemezortzi kantako bi diskok osatzen dute. "Jolasez beteta dago", aurreratu du herritarrak. Egileen izaera jolastia dute azalak, abestien hitzek, diseinuak, abestiak antolatzeak erak... "Diskoa eskutian hartzean agian entzule askok ez dituzte ulertuko, baina, noiztik egin dugu artea ulertua izateko?".

Bi ikuspuntu uztartzeko ariketa egin dute Tirabirakoek. Taldearen izenak berak horri egiten dio erreferentzia, gizakiek duten borroka honi: "Kolektiboak, askotan, gizabanakoa erabat ukatzen du, eta, era berean, norbanakoak taldea baztertzen du". Hori horrela izanik, "oreka zail hori" islatzeko, diskoetako batean bestearen kanta bat txertatu dute, eta alderantziz. Bestalde, bi perspektiba horietako bakoitza bestearen erraizetaz elikatzen denez, bere burua jaten duen *uroboros* (zehazki, herensuge bat) sinboloari erreferentzia egin dute, gauza material eta espiritual guztien lotura irudikatzen. "Horregatik, disko bateko kanta guztiak bakoitiak dira, eta, besteak, bikoitiak".

Reggae musika du oinarri Tirabirak eta hori landu du *BAT* lanean. Diskoetako batean, "gizabanakoa bere ingurune naturalean integratzeko beharretik" sortu denean, jamaikar reggaearen sustraietan sakondu dute, hori bai, aitortuta ezin izan dituztela saihestu beraien "sustraiak eta baliabide kulturalak". Lan horren bigarren zatia, berriz, "espiritualagoa" da, "gizaki bakoitzaren barruko unibertso aztergaitzean murgiltzen saiatzen dena". Halaber, espermentalagoa ere bada eta reggaea ardatz badu ere baditu "beste eragin batzuk", musikariak "ikusuntu pertsonalago batetik" landu dutelako.

Gogoz eta ilusioz ereindako hazieren fruitua kalean dago (herritarrek Jalgi, Andatza eta Avenida tabernetan eros dezakete *BAT*, 10 euroren truke) eta orain zuzenean defendatzeko prestatzen ari dira Tirabirako kideak. Gorabeherak gorabehera eta aldaketak aldaketa, honako seikote hau ariko da ohol-tza gainean: Ivan Moreira baterria jotzailea, Aitor Moreno baxu

AGENDA

OSTIRALA 29

LASARTE-ORIA Zinema

Okendo Zinema Taldeak hilabeteko bigarren emanaldia egingo du: *Soy Nevenka* filma proiektatuko du. Sarrerek 6 euro balio dute. *Kultur etxea, 20:00etan.*

LARUNBATA 30

LASARTE-ORIA Jaialdia

Jalgune Elkarteak *Larunbata* gustuko ditugulako jaialdia ospatuko du. Bertaratu nahi dutenek gonbidapenak eskuratu behar dituzte kultur etxeko leihatilan. *Kultur etxea, 18:00etan.*

ABENDUAK 1

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Errumaniaren Nazioarteko Eguna ospatuko du Decebal Euskadi elkarteak. *Gizarte Etxea jatetxea, 14:00etatik aurrera.*

ABENDUAK 3

LASARTE-ORIA Hitzaldia

Altxa Burua ekimeneko kideek Mikel Cerezo aditua gonbidatuko dute haur eta nerabeen sare sozialen erabileraz hitz egitera: *Antonio Mercero aretoa, 17:30etik aurrera.*

jotzailea, Bea Hurtado teklista, Aitor Badiola gitarra jotzailea, Eider Ormazabal koruak egiten eta *Xa2 Makulu* bera, abesten eta gitarrarekin. Teknikaria, berriz, Iñigo Egia izango da.

Aurreneko kontzertua abenduaren 7an emango dute, larunbatez, Erretereriako Niessen aretoan, 20:00etatik aurrera. Sarrerek 10 euro balio dute. *Xa2 Makulu* aurreratu du *BAT* laneko abestiez gain diskotik at utzitako bat ere joko dutela eta zuzeneko musikaz uztartuko dutela beste elementu bisual batzuekin. Emanaldi horren ostean gehiago emateko "irrikaz" daude Tirabirako kideak.

Elkarrizketa, osorik,
www.txintxarri.eus-en



GIPUZKOA

Ekin.

Gipuzkoa oparoagoa izateko.

Zaindu.

Pertsona guztiak eta horien ingurukoak zaintzen dituen.

Bizi.

Ondo eta duin bizi daitezten.



GIPUZKOA
Foru Aldundia

2025EKO MAIATZAREN 15ETIK 25ERA



Lasarte-Oria

Elkar mugituz egingo dugu

IZEN EMATEAK

Entitateak: urtarrilean
Norbanakoak: martxoan

